

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BASO-SUTEAK ITZALTZEA	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF1266		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Naturaguneen leheneratze, mantentze, antolamendu eta defentsaren kontrola eta zaintza	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Basoberritzea eta leheneratze hidrologikoa	Iraupena	50
	Basogintza eta baso-izurriteen kontrola	Iraupena	40

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0086\_3 BALIABIDE NATURALAK LEHENERATU, MANTENDU, ANTOLATU ETA BABESTEKO ERAGIKETAK ZAINZEA ETA HAIETAN LAGUNTZEA gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Baso-suteak prebenitzeko lanak egitea eta haietan laguntzea.

E1.1 Baso-suteen eraginari buruzko azterketak interpretatzea.

E1.2 Baso-suteen prebentzioari buruz gizaritari informazioa emateko kanpainetan parte hartzea eta laguntzea.

E1.3 Eguraldi-iragarpenak eta baso-suteei buruzko arrisku-mezuak interpretatzea.

E1.4 Baso-suteak prebenitzeko lan baten faseak deskribatzea, eta horretarako erabiltzen diren helburuak eta teknikak, prozedurak eta baliabide materialak azaltzea.

E1.5 Baso-suteak prebenitzeko hainbat baso-lan gainbegiratzea.

E1.6 Nekazaritzako erreketak kontrolatuak eta su artifizialak nola egiten diren gainbegiratzea.

E1.7 Eguraldi-iragarpen eta/edo sute-arriskuari buruzko txosten baten kasu praktikoa batean:

- Meteorologia-kondizioak interpretatzea, sua itzaltzeko gailuak non kokatu jakiteko.
- Baso-sutearen arrisku-txostena interpretatzea, sua itzaltzeko bitartekoak non kokatu jakiteko.

A2: Baso-sute baten ezaugarriak, parteak eta portaera eta baso-sute motak identifikatzea.

E12.1 Suaren portaeraren ezaugarriak zein diren jakitea, suan sortzen diren erreakzio fisikoak interpretatuz.

E12.2 Une oro suaren portaera identifikatzea, ahalik eta modurik eraginkorrenean jarduteko eta arrisku-egoerak prebenitzeko.

E12.3 Sutearen portaera aldarazten duten faktoreak zein diren jakitea, arrisku-egoerak prebenitzeko eta eraginkortasunez jarduteko.

E12.4 Sute- eta erregai-ereduak identifikatzea.

E12.5 Baso-sute handien inguruan giza jarduerarekin lotuta dagoen problematika aztertzea.

E12.6 Pertsonak eta azpiegiturak babesteko behar diren segurtasun-neurriak aplikatzea.

E12.7 Baso-sute baten kasu praktikoa batean:

- Sua zabaltzeko faktoreak identifikatzea eta baloratzea.
- Suaren portaera zehazten duten faktoreak baloratzea.
- Suaren uneko portaera eta aurreikus daitekeen portaera identifikatzea.
- Su-mota ezagutzea.
- Eskura dauden bitartekoak, haiek sua itzaltzeko duten ahalmena eta errefortzuen erabilgarritasuna baloratzea.
- Bitartekoak sutearen perimetroan kokatzea.
- Sua itzaltzeko egin beharreko lanak adieraztea.
- Egiten ari diren lanen eraginkortasuna baloratzea.
- Banako eta taldeko segurtasun-neurriak gainbegiratzea.
- Baso-sutea erabat edo partzialki itzaltzeko koordinatzea.
- Koordinazio- eta komunikazio-sistemak ezartzea laguntza-bitartekoekin.

A3: Sua itzaltzeko zereginetan arduradun gisa jardutea.

E13.1 Sua itzaltzeko bitartekoen zaintza prebentiboa antolatzea lekuan bertan.

E13.2 Sua itzaltzeko giza bitartekoak eta bitarteko mekanikoak antolatzea erdi-mailako arduradun gisa.

E13.3 Sua itzaltzeko teknikak eta une bakoitzean nola aplikatu behar diren azaltzea.

E13.4 Suteak itzaltzean aplikatu beharreko segurtasun-protokoloak deskribatzea.

EI3.5 Baso-suteei buruzko araudi espezifiko eta baso-suteagatiko delituaren zigor-kodeko kontzeptua interpretatzea.

EI3.6 Baso-eremu batean gertatutako sute baten kasuan:

- Sutea non hasi den zehaztea.
- Sutearen jatorria adieraz dezaketen lagin guztiak biltzea.
- Jatorria argitzeko beharrezkotzat jotzen ditugun lagun guztiei elkarrizketak egitea.
- Egun horretako eguraldi-iragarpena eta egindako sute-arriskuen indize-txostenak aztertzea.
- Txosten fotografiko zorrotz bat egitea.
- Egindako lanen eta haietatik ateratako ondorioen txosten xehatu bat egitea.
- Ikerketaren ondoren, atestatu bat edo ikuskapen-akta bat egitea, hala badagokio.
- Dokumentu eta proba horiek agintari eskudunari aurkeztea.

## Edukiak

### 1. Baso-sutearen ezaugarrien zehaztapena.

- Su-triangelua.
- Suaren portaera.
- Suaren hedapena: motak.
- Faktore erabakigarriak:
  - klimatologia;
  - orografia;
  - erregaiak;
  - Sukortasuna.
- Giza jarduera.
- Ereduak.
  - Suaren hedapena.
  - Su-motak.
- Baso-sutearen kalte ekologikoak.
- Azpiegiturak eta pertsonak babestea.
- Baso-sute baten atalak.
- Baso-sute motak.
- Baso-sute handiak.

### 2. Baso-suteen prebentzioa.

- Baso-suteen eraginari buruzko azterketak.
  - Arrisku-jarduerei buruzko azterketa.
  - Suteei buruzko estatistikak.
- Informazio-kanpainak.
- Baso-lan prebentiboak.
  - Zerrenda laguntzaileak.
  - Suebakiak.
  - Bakantzeak.
  - Sutearen kausei buruzko ikerketa.
- Beste prebentzio-neurri batzuk.
- Arrisku-jarduerak.
- Erreketa kontrolatuak.

### 3. Baso-suteen zaintza eta itzaltzea.

- Giza baliabideak.
- Segurtasuna. Norbera babesteko ekipoa (NBE). Buru, aurpegi eta begietarako babesa. Gorputz-adarrak babestekoa. Beste babes-ekipo batzuk: arnesak, gerrikoak, etab.
- Bitarteko materialak.
  - Ibilgailuak.
  - Aireko bitartekoak.
  - Erreminta mekanikoak eta eskuzkoak.
  - Mahuka-lineak.
  - Itzaltze-ponpak.
  - Transmisio-sistemak.
- Itzaltze-bitartekoak antolatzea zaintzan.
- Sutea itzaltzeko lanak koordinatzea.
  - Egitura.
  - Zuzendaritza.

- Erdi-mailako arduradunak.
- Segurtasuna.
- Babes zibila.
- Sutea itzaltzeko teknikak.
  - Suteak itzaltzeko ekipoei buruzko prestakuntza eta entrenamenduak.
  - Plangintza.
  - Praktiak.
  - Ebaluazioa.
- Segurtasuna baso-suteetan.
  - Segurtasun-protokoloak.
  - Baso-suteetan istripua izan dutenentzako lehen laguntzak.
  - Populazioen ebaluazioa.
  - Segurtasuna ekipoak, makinak eta ibilgailuak erabiltzean. Ekipo eta erreminten mantentze-lan prebentiboa.
- Baso-suteak itzaltzeari eta babes-zibilari buruzko legedia.
- Baso-suteengatiko lege-erantzukizuna eta lege-erantzukizuna baso-suteetan.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa.